

# **ZALDIBAR ANTZOKIA KULTURARAKO, EKITALDI POLIFUNTZIONALETARAKO, AZOKETARAKO ETA EKITALDI PRIBATUETARAKO ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK**

## **EGITATE ZERGAGARRIA.**

Tasa honen egitate zergagarria da Zaldibar Antzokiaren aprobetxamendu berezia edo erabilera pribatiboa, eta baita erabilpen horri lotutako udal zerbitzuak ematea ere.

## **SUBJEKTU PASIBOA.**

Subjektu pasiboak izango dira, zergadun gisa, antzokiaren erabilera pribatiboa izateko baimena jaso duten edo baimena eskatu gabe antzokia erabili edo aprobetxatzen duten pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 36. artikuluan aipatzen dituen entitateak.

## **SALBUESPEN ETA HOBARIAK**

Honako hauek ez dira tasapean egongo:

- 1.- Udalak babestutako edo diruz lagundutako ekintzak.
- 2.- Udalarekin hitzarmen bidez egindako ekintzak edo ikastetxeek egindakoak.
- 3.- Eskoriatzan egoitza soziala duten irabazi asmorik gabeko fundazioek eta elkarteek antolatutako ekintzak, interes orokorreko helburuak badituzte eta ekintza horiek fundazioaren edo elkartearen helburu sozialari lotuta baldin badaude.
- 4.- Era berean, ez dute tasarik ordaindu beharko ere alderdi politikoek eta hautesle-elkarteek hauteskunde kanpainarako eskatutako ekitaldiek.

## **ZERGA KUOTA**

Eskatuko den zerga kuota gutxieneko kopuru bat izango da, erabilera mota edo izaeraren eta egoeraren arabera metatuko diren koefizienteak aplikatuz.

**Tarifa:** Horretarako, ondorengo tarifak aplikatuko dira:

Egun erdi..... 300 €

Egun osoa ..... 400 €

Jaiegunetako erreserba bereziak (jaiegunetako lana larunbateko edo jai bezperako 22:00etatik jaieguneko edo igandeko 22:00etara egindako da) 30 euro orduko tarifa bereziarekin grabatuko dira, ezarritako tarifari gehituko zaiona.

Prezioan Zaldibar Antzokia irekitzeko langilea sartuta dago.

Prezioan aretoan erabilgarri dagoen ekipamendu teknikoa eta ikus-entzunezkoa sartuta daude, eta baita ikus-entzunezko baliabide horietarako teknikari bat ere.

Ekitaldiak hala eskatuz gero, zerbitzurako beste langile batzuk edo ekipamendu batzuk beharko balira, horiek eskatzailearen kontura izango dira.

Egun erdiko ordutegian 4 orduko erabilpena sartzen da; egun osokoa, 8 ordukoa.

Espazioa muntatzeko eta desmuntatzeko denbora erabilpen denbora bezala hartuko da.

## **SORTZAPENA**

Tasa sortzen da eta ordaindu beharra dago erabilera pribatiboa hasitakoan, eta ondorio horretarako ulertuko da lizentzia ematerako unean hasten dela, lizentzia eskatu baldin bada.

Erabilera pribatiboa egon bada lizentzia eskatu gabe, tasaren sortzapena erabilera horren hasieran izango da.

Eskaerak, gutxienez, ekitaldia baino 15 egun natural lehenago egin behar dira, eta baimena ez da emango hilabete bat baino gehiagoko aurrerapenez. Hilabete baino gehiagoko denboraz egindako erabilera eskaerak erabilera erreserbatzat hartuko dira, udal programazioaren menpe geldituko dira, eta ekitaldia baino hilabete lehenago tramitatuko dira benetako eraginarekin.

Erreserbak bertan behera utzi nahi izanez gero, idatziz egin beharko da. Baimen eskatzaileak eskarian atzera eginez gero:

- Ekitaldia baino 5 egun edo gutxiago. Tarifa aplikatuta dagokion kuotaren %25a izango da kitatu beharrekoa.

- Ekitaldia baino 6 egun eta hilabetearen artean. Tarifa aplikatuta dagokion kuotaren %10a izango da kitatu beharrekoa.

## **ORDAINKETA**

Ordainketa udal diru zaintzan egin beharko da, gutxienez, ekitaldia baino 7 egun lehenago.

Epe horretan ez balitz ordainduko, baimena baliogabe geldituko da. Baliogabetze hori isilbidez bertan behera utzitakotzat joko da, eta dagokion kuotaren %25a ordaintzeaz gain, Udalak kalte-ordainak erreklamatu ahal izango ditu.